



2018KO EKAINAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita seian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jabier Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko maiatzaren 29an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2017KO KONTU OROKORRA.-

2017ko ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuatarako Batzorde Bereziak 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2018ko maiatzaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, aho batez, 2017 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

Kontu Orokorr honek udalaren 2017ko Kontu Orokorra eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2017ko urteko kontuak hartzen ditu barne.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 4 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.



Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Kreditu aldaketa honen partida garrantzitsuenak lurren erosketak, Jose Las-Hirigoi bidegorria eta herri bideen konponketarako partidaren gehikuntza dira gastuei dagokionean eta sarreretan Larreategiko bi lursailen besterentzea eta bien arteko aldea diruzaintzako gerakinarekin berdinduko da.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du jakina dela beraien iritzia eta sei hilabete-tan 4 kreditu aldaketa ez zaiela ondo iruditzen. Gainera, kreditu aldaketaren edukiari dagokionez, ez daudela ados lur erosketarekin, ez delako lehentasuna une honetan eta bestela ere badagoela dirua non inbertitu, eta udalak badituela lurak lehen ere. Herri bideen mantentzeari buruz esaten du lehen ere badagoela nahiko partida beste horrenbeste jarri beharrik gabe. Larreategiko lursailak besterentzeko lizitaziora ateratzearenari buruz esaten du lehen ere atera zirela eta ez zela lortu besterentzea eta orain ere lortuko den oso zalantzagarria dela eta beraz ea zergatik hori kreditu aldaketan sarrera bezala jarri den, esaten du gastuari aurre egiteko sarrera beste nonbaitetik atera beharko dela, eta ea jartzearen hori diruzaintzako gerakina agortu delako al den.

Alkateak Andonegi zinegotziak esan dituenari erantzunez esaten du ezaguna dela beraiek esaten dutena eta ezaguna dela ematen zaion erantzuna ere. Lurren erosketari buruz esandakoari erantzuten dio esanez udalak nahiko lur baldin badu, iraganean ere hitzarmenak izenpetu eta erosketak egin zirelako dela eta gaur egitea planteatzen dena ere horixe bera dela. Larreategiko lursailak besterentzearen sarrerena, esaten dio sarreretan jarri dela aurrekontuan azaldu dadin eta lursail horiek lizitaziora ateratzeko eta ez gerakinik ez dagoelako, izan ere oraindik diruzaintzako nahiko gerakin badagoela denon jakinaren gainekoa dela. Baita ere esaten dio egia dela gauza gehiago badaudela egiteko, baina iruditzen zaiola hauek ez dutela ezer hipotekatzen.

Hau honela, eta gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren, bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), eta aurkako 6 botoz (EH Bildu), honako erabakiak hartzen ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 4 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak	150.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	725.000,00 €



GEHIKUNTZAK GUZTIRA	875.000,00 €
----------------------------	---------------------

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VI	Inbertsio errealak besterenganatetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk	260.000,00 €
VIII	Finantza aktiboak	615.000,00 €
GUZTIRA		875.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- "EUSKARALDIA" ERAKUNDE ADIERAZPENA.-

Udala osatzen duten bi alderdi politikoen, "euskaraldia" Lazkaoko herrian sustatzeko ondorengo adierazpen instituzionala egitea adostu dute. Adierazpen instituzionalak honela dio:

Lazkaoko Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Ordezkeri politikoen egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzeke urratsak egingo ditugu, arduradun politikoen zein langileak izan.
- Ahobiziotik euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Belarriprestok gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.



- Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrek gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- Udalak bat egiten du ekimena elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin Gipuzkoan, ahalik eta udal eta mankomunitate gehienetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Batzar Nagusietan, lurralde mailako politika bateratu bati begira.

VI.- EKAINAREN 28A, LGTBI EGUNAREN INGURUKO ADIERAZPENA.-

Jarraian udala osatzen duten bi alderdi politikoen adostasunez ondorengo adierapen instituzionala egiten da:

LGTBI+ PERTSONEN SEXU-ASKAPENERAKO NAZIOARTEKO EGUNA Ekainak 28

49 urte igaro dira Stonewalleko errebolta geroztik, 1969ko ekainaren 27tik 28rako gauetan New Yorkeko polizia Stonewall izeneko pub batean sartu zen transexual, lesbiana, gay eta bisexualak atxilotzeko. Euren eskubideak defendatzeko elkartzen ziren lehen aldia ez bazen ere, data hori mugarri bihurtu zen diskriminazio -eta ikusezintasun- testuinguru batean: LGTBI+ pertsonen euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzeko antolatzen zuten borrokan katalizatzaile bat izan zen.

Orduz geroztik ekainaren 28an LGTBI+ pertsonen Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna ospatzen da: dibertsitatea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere.

Gaur egun oraindik ere LGTBI+ pertsonen mota guztietako diskriminazioak jasaten dituzte, askotan indarkeria barne: sexu-orientazioagatiko eta/edo genero identitateagatiko gorroto-delituak, heterosexualitatea arau gisa inposatzen dela agerian uzten duten hainbat diskriminazio eta eraso, trans kolektiboaren patologizazioa, trans diren haur eta nerabeentzako arreta egokirik eza, eta abar. Ez dugu ahaztu behar bidegabeko errealitate diskriminatzaile hori askoz handiagoa dela pertsona askorentzat euren arraza, jatorria, egoera administratiboa eta sozioekonomikoa eta abar direla medio. Oraindik ere hori gertatzen ari da gure gizartean, eta gure betebeharra da LGTBI+ pertsonen aurkako diskriminazio mota oro ezabatzeko lan egitea. Araudiari eta ekintza espezifikoak martxan jartzeari dagokienez aurrerapausoak eman diren arren, oraindik lan asko egin behar da LGTBI+ pertsonen euren eskubide guztiez egun guztietan goza dezaten defendatzeko eta sexualitatea eta generoa bizitzeko modu eta adierazpen guztien normalizaziorantz beharrezko gizarte-aldaketa gauzatzeko.

Egun honetan ezin dugu ahaztu Euskal Herrian mugimendu LGTBI+ osatzen duten pertsona guztien borroka aldarrikapena, izan ere, eguneroko zereginean, eta diskriminazio mota oro ezabatzeko lan eginez, gizarte benetan bidezkoa eta igualitarioa eraikitzeke funtsezko ekarpena egiten bai baitute.

Euren borrokari laguntzeko gure konpromiso politikoak egunerokoa izan behar du, ez soilik adierazpenak eginez, baizik eta gizarte-ordezkariekin adostutako ekintzak martxan jartzeko giza baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak konprometitz, betiere ikuspegi eraikitzailearekin.



Funtsezko giza eskubideez, norberaren identitatea definitzeko eta identitate hori askatasunez bizitzeko eskubideaz ari gara.

Horregatik, Udal honek konpromisoa hartzen du honako hauek egiteko:

Bere politiketan sexu-aniztasuneko eta genero-identitateko ikuspegia sartzea, eta zehazki:

- Diskriminazioaren prebentziorako eta identitate eta praktika sexu-afektibo ez hetero-arautzaileak, askotarikoak eta askatasunean egindakoak garatzeko ekintzak barnean hartzen dituzten baterako hezkuntza programak egiten jarraitzea, beharrezko baliabideak bermatuz.
- Diskriminazioa jasaten duten LGTBI+ pertsona guztiei, eta bereziki beren sexu, arraza, jatorri, egoera administratibo edo abarregatik kalteberatasun handiagoko egoeran dauden pertsonen sozialki, psikologikoki, juridikoki eta ekonomikoki laguntzeko beharrezko baliabideak emateko ahalegin guztia egitea.
- EAEn LGTBI+ pertsonen eskubideen defentsa osoa eta araudiaren garapen egokirako beharrezko baliabide guztiak bermatuko dituen araudi espezifiko bat martxan jartzeko eskaera egitea.
- LGTBI+ adineko pertsonen arreta egokirako zerbitzuak sustatzen jarraitzea.
- Gure eskumenen esparruan, beste leku batzuetatik iristen diren eta beren sexu orientazioaren edota genero-identitatearen ondorioz jazarpena jasaten dutela adierazten duten pertsona guztientzako arreta osoa eskaintzea.
- Mugimendu LGTBI+ etengabeko komunikazio eta lankidetzak kanalak sakontzea eta ekimen bateratuak martxan jartzeko baliabideak erraztea. Era berean, aurreko ekintza horiek guztiak mugimendu horiekin kontrastatu beharko dira.

Herritarrei dei egiten diegu, mugimendu LGTBI+ gure udalerrri eta hirietan deitzen dituzten ekintzetan parte har dezaten.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du uztailaren 31 jai eguna dela kontuan izanda, hurrengo osoko bilkura, inolako gora beherarik izan ezean behintzat, uztailaren 24ean, asteartea, egingo dela.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.